

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Jaberik gabeko behorra

Jakitera ematen da Langara Ganboa eremuan gutxi gorabehera 10 urteko adina duen zaldi-eme bat aurkitu dela, eta, identifikagarririk ez duenez, jaberik gabeko behorra izendatu dela, azaroaren 22ko 374 zenbakidun Alkatetza-Dekretu bidez.

Hori guztia argitara ematen da, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hamabost egun baliouduneko epean, animalia jabea udaletxean aurkez dadin eta, jabea dela egiaztatu ondoren, hala badagokio, animalia jaso dezan, eragindako gastuak eta kalteak ordaindu ondoren.

Epe hori igaro ondoren ez bada jabea agertzen, enkante bat egingo da, animalia saltzeko.

Duranan, 2024ko azaroaren 22an

Alkatea

MARIA BLANCA ANTEPARA URIBE